

I - ARABAKO BATZAR NAGUSIAK ETA ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN FORU ADMINISTRAZIOA

Arabako Foru Aldundia

DIPUTATU NAGUSIAREN SAILA

Foru Gobernu Kontseiluaren 565/2019 Erabakia, irailaren 17koa. Onestea Arabako Foru Aldundiak Gasteizko UNED Ikastegi Elkartuko Partzuergoan (Patronatua) duen ordezkaritza berritu dadila

Foru Gobernu Kontseiluaren ardura da Arabako Foru Aldundiak erakunde eta instituzio publiko nahiz pribatuetan dituen ordezkariak izendatzea, abenduaren 18ko 52/1992 Foru Arauak, Arabako Foru Aldundiaren Antolaketa, Funtzionamendu eta Lege Araubideari buruzkoak, bere 8. artikuluan, 9. eta 10. idatz zatietan aurreikusikoaren arabera.

Beraz, ezinbestekoa da UNED-en Gasteizko zentro elkartuan (Patronatua) Arabako Foru Aldundiak izango duen ordezkaritza berritzea.

Horregatik, Diputatu nagusiaren proposamenez, eta Foru Gobernu Kontseiluak gaur bertan egindako bilkuran aztertu ondoren, hau

ERABAKITZEN DUT

Lehenengoa: María Itziar Gonzalo De Zuazo Ogasun, Finantza eta Aurrekontu saileko foru diputatua, eta Ana María del Val Sancho, Kultura eta Kirol saileko foru diputatua, izendatzea Arabako Foru Aldundiaren ordezkari titular, eta aldi berean José Luis Cimiano Ruiz, Arlo Estrategikoen Zuzendaria eta Igone Martínez de Luna Unanue kargutik kentzea UNED-en Gasteizko zentro elkartuan (Patronatua) (foru administrazioak partaidetza duen erakundearen erregistroko 4 zenbakia).

Bigarrena: Erabaki honek onartzen den egunetik bertatik aurrera izango du indarra, ALHAOn argitaratuko den eguna edozein dela ere.

Gasteiz, 2019ko irailaren 17a

Diputatu nagusia

RAMIRO GONZÁLEZ VICENTE

Diputatu Nagusiaren Kabinetearen eta Komunikazioaren zuzendaria

ELENA FERREIRA SEBASTIÁN